

## NABARRA ESTATUKO EKONOMIA

Eskoriatza (2005.2.10)

Ezinezkoa da ekonomia politikarengandik banatzea. Nabarra bezalako Estatu okupatu batean, ekonomía inperialismoaren interesak defendatzeko egokitua da. Erraza da ulertzea beraz Estatu burujabearen ekonomía militarki zapaldurik dagoen Estatuarena baino indartsuagoa dela. Baina militarki zapaldurik dagoen Estatu honek jasaten duen zabor informazioa handia da, behin eta berriro zapaltzailearen interesen defentsarako den informazioa.

Nabarra aske batek, berriro ere lortuko luke bai Europako zein Mundu osoko herrialde aberatzenen bizi kalitate mailan egotea, jada erakutsi dugun gidaritza, lanerako grina eta konpetibitate gaitasunari esker, gainontzekoak berriz ere burujabe izan nahi duen herria beldurtzeko sorturiko mamuak baino ez direlarik. Honegatik derrigorrezkoa zaigu egoeraren ikuspegi argi bat izatea, zer dugun eta zer kentzen diguten ikusirik.

Nabarra Estatua burujabea zenean, bere ekonomia Europako garaienetarikoa zen, horren lekuko Bruxaseko hainbat komertzio liburuk erakusten dutena, Europako portu guztietan itsasontziak zituelarik, jada 1200. urtetik zenbait Afrikar zein Asiar portuetan ere, edota 1170. urtean Tuterako Benjaminek Ejiptoko Alessandria portuko barkuen deskribapena, edo XII. Mendean Antso Jakintsuak sorturiko komertzio herriak, Antso III.rekin Erreinuak XI. Mendean izandako aurreratze ekonomiko garaiena edota Santiagorako bideak dituen bide guztiek lurralde Baskoina zeharkatzen zutelarik. Nabarran 1258. urtean Konptoen Kamera sortu zen, patrimonioaren fiskaltza eta finantza publikoak zuzentzen zituelarik, baita Kontu Modernoen Tribunal Gaztelan baino III mende lehenago. Hauek pintzelkada batzuk baino ez dira.

Ez dugu ordea historian horren urruti joan beharrik, egi soil batzuk aurkeztea nahikoa zaigu: Nabarra Estatuaren okupazio militarra estaltzekotan espainiatik emandako apur edo transferentziak (frantziak hori ere ez) beraiak baino gaitasun handiagoarekin zuzentzen ditugu eta enpresa publiko guztien itxieraz gain gure errenta espainiarrena baino garaiagoa da eta frantsezen ainakoa.

Egun, Euskal ekonomiak dituen kezkarik handienak Estatu okupatzaileengandik datoz: Arrazoi politikoengatik eta beraien kontrolerako Goi mailako entpresak Madrilera bideratzea, demagun Gamesa edo ITP adibidez, BBVA bezalako kasuetan bésala helburua lorturik, honek Euskaldunontzat ekarri dituen galerekin; Egoera Ifarraldean askoz argiagoa da, adibide bezala frantzesek arrazoi politikoak medio ekonomiarentzat derrigorrezkoa dugun Baionako Euskal Nekazal Kamerari ezekoa ematea. Bainan Euskaldunon galerak espainia eta frantziari esker ez dira hemen bukatzen.

Europako Estatuak Europar Batasunaren eraikuntzan ari direlarik eta mundua globalizatzen , Euskaldunok ez dugu gure ekonomia defendatzeko aukerarik, espainiak ezarritako eae-ko

eta nae-ko gobernuek (Ifarraldean hori ere ez) ezinetan daude Estatuak dituzten konpetentzi faltagatik. Espainiak eta frantziak Nabarra Estatuaren interes ekonomiko ezberdinak eta aurkako interes politikoak dituzte, espainiaren kasuan interes nagusiak Turismo eta nekazaritzan sektoreetan dituzte beraz ezinezkoa da Euskal ekonomia inongo eztabaida forotan defendatzea.

Zenbakietaz arituz gero, Hego Euskal Herriaren Kupo likidoaren ordainketaz, gizarte segurantzaz ordaindutakoaz (Superabitduna Euskalerrian), INEM eta Hezkuntza Jarraiaz ordaindutakoaz, Naparrok espainiari azken 4 urteotan 1,3 billoi peseta erregalatu dizkiogu. Kontu hauek okupazio ejerzitoari, guardia zibilari, espainiar enbajadei, espainiar monarkiari eta Nabar interes ekonomikoen kontrario diren beste hainbat talderi ordainduta gero ateratzen dira.

Nabarra Estatua lurralde ekonomiko naturala da, lurralde ezberdinek osatua, garapen oso baten ahalbideratzeko barne elementu egokien jabe dena. Baina objektu politiko izateak ongizate eta ekonomi galera nabarmenak dakarzkigu.